

Durangoko erdigunean dagoen 60.000 metro karratuen etorkizunari buruz galdetuko diete herritarrei domekan. "Ados al zaude PERI1 Trenbidea proiektua gelditzearekin eta irtenbide bideragarri baten azterketa abian jartzearekin, betiere, herritarren parte hartzea aintzat hartuta?". 24.700 durangarrek eman dezakete botoa galdera horri bai ala ez erantzunda. • 2-3



Herritarren ordua da



Urkiolara igoera

Kirola • Javier Bodegasek Urkiolako igoeraren historiako argazkiak eta dokumentazioa batu ditu liburu batean. • 20

Berrizko Azeri Gorriak talde feministak '34 leiho' liburua argitaratu du

Herririk herri • Herriko emakumeei berba eman eta euren lana eta bizipenak lau haizetara zabaltzeko asmoz, Berrizko Azeri Gorriak talde feministak 34 leiho liburua argitaratu du asteon. Liburuaren oinarrian izen bereko

erakusketa dago, 34 leiho erakusketa. Erakusketa martxoaren 26ra arte egongo da ikusgai, Berrizko Kultur Etxean. Liburua herriko zenbait gunetan egongo da eskuragarri, 10 euroan • 10



"Errefuxiatuak gai izan dira herri moduko bat sortzeko"

Abadiño • Larraitx Arkarazo erizain abadiñarra Kiosko (Grezia) irlan egon da hango errefuxiatu guzuek lanean. • 5



ERABAKIA IZAN

HERRI GALDEKETA
Trenbide zaharreko
proiektua



MARTXOAK

14

GAKOAK

1

Galdera

Ados al zaude PERI1 Trenbidea proiektua gelditzearekin eta irtenbide bideragarri baten azterketa abian jartzearekin, betiere, herritarren parte hartzea aintzat hartuta?

Martxoaren 14an galdera horri BAI edo EZ erantzun beharko diote herritarrek.

2

Martxoak 14

Galdeketa beste hauteskunde batzuetako ordutegia izango du: 09:00-20:00.

Martxoaren 13a hausnarketa eguna izango da.

3

Autobusa

Autobus bat ipiniko dute Landako Gunera joateko (09:00-19:30). Autobus horrek 15 plaza ditu eta horietatik 3 mugikortasun mugatua duten pertsonentzat izango dira.

San Fausto - Larrasoloeta (Durango irratia) - Tabira (Arriluzeaga 11) - San Agustinalde 14/16 - Askatasun Etorbidea 26 - Aramotz Auzunea (Pagasarri 3) - Astepe - Fray Juan de Zumarraga 25 - Landako Etorbidea (autobus geltokia).

4

17 mahai

Landako Gunean hauteskundeetan ezartzen diren eskolen arabera antolatuko dute boto ematea (ikusi 3. orriko mapa). 17 mahai ipiniko dituzte, behar den moduan seinaleztatuta, herritarrek nondik sartu behar duten jakiteko. Lau sarrera egongo dira.

Informazio puntu bat egongo da 2. sarreran, herritarren zailantza argitzeko.

5

51 boluntario

Hauteskunde-mahaietan 51 boluntariok eta 6 udal langilek lan egingo dute.

141 herritarrek eman zuten izena galdeketa laguntzeko, eta udalak 51 aukeratu zituen, zozketa baten bitartez.

Informazio guztia: www.galdeketa.durango.eus



Ima Garrastatxu eta Julian Ríos Landako Gunean emandako prentsaurrekoan.

Landako Guneak Durangoko historian lehenengoz egingo den herri galdeketa hartuko du domekan

17 mahai ipiniko dituzte erakustazokan; 09:00etatik 20:00etara egongo da zabalik

DURANGO • JONE GUENETXEA

Egun gutxi geratzen dira PERI1 Trenbidea proiektuaren inguruko galdeketa egiteko. Egun historikoa izango da, Durangon egingo den lehenengo herri galdeketa izango delako. Gobernu Taldeko kideak Landako Gunean batu ziren atzo, kontsultaren inguruko informazio praktikoa emateko. Ima Garrastatxu Durangoko alkateak azaldu zuenez, "nabarmendu gura dugu kontsulta hau herriak agindu digula guri, eta ez alderantziz. Horregaitik, Erabaki plataforma herritarrek egindako lan guztia nabarmendu gura dugu, ez baita erraza Durango batean ia 4.000 sinadura lortzea. Julian Ríos alkateordeak azpimarratu zuenez, "egoera sanitario gata bizi dugun arren, segurtasun protokoloak ezarri ditugu botoa ematea segurua izan dadin".

Eztabaida politikoa

Galdeketa kanpainan zehar, Durangoko alderdi politikoek euren iritzia eman dute. Horrek ika-mika sortu du, gainera. PSE-EEren kasuan, galdeketa "fartsa" bat dela eta ez duela parte hartuko azaldu zuen orain aste bi. Durangoko EAJk herri galdeketa buruzko posizioa aste honetan argitu du. Abstenitu egingo da domekan, eta abstentziora jotzeko

deia egin die durangarrei. Talde jeltzaleak adierazi du begi onez ikusten dituela herritarren parte hartzea eta kontsulta, horiek "berme juridikoekin eta informazio guztiagaz" egiten badira; baina domekan egitekoa den galdeketa ez ditu ezaugarri horiek betetzen, jeltzaleen iritziz. Udalak eta Eusko Trenbide Sareak trenbidea lurperatzerakoan sinatu zuten akordioari buruz ere berba egin du EAJk. Bere esanetan, "akordio hori

Ima Garrastatxu:
"Kontsulta hau herriak agindu digu guri, eta ez alderantziz"


Julian Ríos: "Segurtasun protokoloak ezarri ditugu, botoa ematea segurua izan dadin"

hausteak eta 60.000 m2-ko lursaila desjabetzeak Eusko Jaurlaritzari 266 milioi euroko kalte-ordaina ematea ekarriko lioke udalari". Horrenbestez, "udal kutxak ia porrot" egingo lukeela, eta "zerbitzu publikoen gastuak bere gain hartzeko gaitasuna" murriztuko litzatekeela gaineratu du EAJk.

Durangoko EH Bilduk gogor kritikatu ditu jeltzaleen adierazpenak. "Durangoko EAJk Trumpen gustuko intoxikazio eta desinformazio estrategiekin bat egin izana arbuiatzen dugu", adierazi du koalizio subiranistak. Trenaren lurperatzeak eta inguruan eraikitako zerbitzuek eragindako gastuen inguruan koaliziotik azaldu dutenez, "durangarrek ordaindu beharko dituztela esatea gezur handi bat da". Gaineratu dutenez, "garrantzitsua da obra horren hasierako aurrekontua 67 milioi eurokoa izan zela gogoratzea, baita kostuen eta gainkostuen artean azken kostua 266 milioi izan dela ere, 'kudeaketa onaren' demostrazio zoragarria".

Podemos Ahal Duguk galdeketa "boikoteatzen" aritzea egotzi die EAJri eta PSE-EEri. Abstenzioan lerratzea "dorreen proiektua defendatzea" dela dio talde moreak. Horren aurrean, galdeketa parte hartzea eta bertan baiezkoa bozkatzea deitu dituzte herritarrek. Isabel González legebiltzarkide durangarraren esanetan, domekakoak "inflexio puntu bat" ekarriko du. Bere esanetan, "Ordezkaritza demokratik demokrazia parte hartzaileran" eman beharreko bidea islatuko luke galdeketa.

Joan zen uztailleko hauteskundeetan botoa eman zenuen mahaiaren izena aurkitu behar duzu eta horri dagokion atetik sartu.



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

Aukera Azokak 10.000 bisitari inguru izan ditu eta dendariak ohiko salmentei eutsi diete

"Saltokien portzentaje altu bat pozik agertu da eginiko salmentekin, hain arraroa izan den edizioan", esan du Dendak Baik



Aurtengo Aukera Azokan 18 establezimenduk parte hartu dute.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

"Arraroa, baina ia-ia ona". Dendak Bai Durangaldeko merkatarien elkarteak berba horrekin laburbildu du joan zen asteburuan Durangoko Landako Gunean egin-

dako Aukera Azoka. Balantzea egin eta kopuru batzuk bistaratu ditu elkarrekin. Gutxi gorabehera, 10.000 bisitari joan ziren Aukera Azokara. Elkarteak esan du kopurua "ohikoa baino baxuagoa" dela, eta gaineratu

du jaitsiera horren atzean orain egun gutxira arte mugikortasuna mugatzeko indarrean egoniko neurriak daudela. Neurrien eraginez, Landako Gunera "Durangoko eta herri mugakideetako pertsonak"

baino ezin izan zirela etorri adierazi du merkatarien elkarteak. Dena dela, "salbuespenak salbu", dendariak "ohiko" salmentei eutsi diete. "Saltokien portzentaje altu bat pozik agertu da eginiko salmen-

tekin, hain arraroa izan den edizio honetan ipiniriko itxaropena bete egin delako", adierazi du Dendak Baik. Prebentzio eta segurtasun neurriak dagokienez, bisitarien jarrera "zoriontzekoa" izan dela jakinarazi du merkatarien elkarteak. Hartu beharreko neurri guztiak errespetatu zirela eta jende pilaketak eta egoera deserosoak ekidin zirela gaineratu dute.

Salbuespenak kenduta, dendariak "ohiko" salmentei eutsi diete; "pozik" daude orokorrean

18 dendari

Joan zen asteburuko Aukera Azokaren hamaseigarren edizioa izan zen. Hamazortzi establezimenduk parte hartu zuten: arropa, osagariak edo zapatilak saltzen dituzten hamabost dendarik eta jatekoa saltzeaz arduratzen diren beste hiru establezimenduk. Aukera Azoka Dendak Baik antolatzen du urtero, Durangoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesagaz. Denboraldi honetan edo besteren batean saldu barik geratutako produktuak prezio merkeagoan eskuratzeko aukera eskaintzen du.

Hondakinen gaikako bilketak %5 egin du gora Zornotzan azken bost urteetan

Gaika baturiko hondakinen portzentajeak ia puntu bat egin zuen gora 2019tik 2020ra. Hondakinen kopuru orokorrak ere antzeko egoera izan zuen: ia puntu bat egin zuen gora

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzan goraka doa hondakinak gaika biltzeko joera. Orain bost urtetik hona, %5 igo da hondakinen gaikako bilketa, eta, %1 igota, joera hori egonkortu egin da iaiztik hona. Dena dela, badirudi hondakinen gaikako igoerak bat egiten duela guztira erregistratutako hondakin kopuruaren gorakadagaz. Izan ere, 2019tik 2020ra bitartean ia puntu bat egin zuen gora gaika baturiko hondakinen portzentajeak,

baina baturiko hondakin kopuru orokorrak igoera berdintsua izan zuen. Modu zehatzagoan esateko, gaika baturiko hondakinak %22,8 izatetik %23,7 izatera pasatu ziren (ia puntu bat gehiago), eta hondakinen kopuru osoa 7.518.384 kilotik 7.530.463 kilora pasatu zen (%1 gehiago). Edozelan izanda ere, Zornotzako Udalak "herritarren ahalegina eta konpromisoa nabarmendu" ditu, eta "birziklatzearen eta edukiontzia behar den mo-

duan erabiltzearen inguruko sensibilizazio mezua" indartzea ere gura du. Horregaitik, udalak jakinarazi du hondakinen tratamendu egokirako kanpaina bat ipiniko duela martxan. Besteak beste, informazio diptikoak banatuko dituzte etxerik etxe.

Hondakinak, atalka

Zornotzako Udalak hondakin klase bakoitzari loturiko kopuruak jakinarazi ditu. Honako

hauek dira: 2019an 309.230 kilo ontzi batu zituzten eta kopuru hori 347.220 kilora igo zen iaz. Altxarien atalean ere gora egin dute kopuruek. 29.320 kilo izan ziren 2019an, eta 31.640 iaz. Azkenik,

materia organikoaren bilketaren igoera nabarmendu du udalak. 2019ko 84.460 kiloak atzean utzi eta 103.360 kilo batu zituzten iaz. Horixe izan da igoerarik esanguratsuenak.



anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko martxoaren 12a
19. urtea - 842. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Zarautzeko Itsas Salbamendu Humanitarioa (ISH) taldeak eguneroko osasun laguntza eskaintzen du Kios irlan (Grezia) dagoen Vial errefuxiatuen kanpalekuan, eta Larraitz Arkarazo erizaina (Abadiño, 1991) talde horren proiektuan lanean ibili da azken hiru asteetan, boluntario. Zarautzeko Gobernu Kanpoko Erakundea 2015etik da ezaguna, Mediterraneoako krisi humanitarioari erantzuna emateko lanean ari delako.

Zer topatu duzu Greziako Kios irlako errefuxiatuen kanpalekuan?

ISHk proiektu bi ditu martxan egun. Aita Mari ontzia alde batetik, eta Kioseko klinika beste batetik. Ni klinika horretan egon naiz, beste erizain batek eta mediku bigaz. Orain, adibidez, sarna agerraldi itzela dago. Hemen sekula ere ikusi ez ditudan ikusi ditut; higieze ezak arazo ugari sortu du: sarna, zorriak, oso zauri zolduak...

Badaude beste osasun arazo batzuk ere: depresioa, antsietatea, lo egiteko arazoak... jendea desesperatuta dago. Itzultzaileen bitartez berba egin dugu gaixoei, eta kontatzen zutena izugarria zen. Kasu bat ezagutu nuen, familiako semerik zaharrena bera. Familiak aurrezturiko diru guztia bera Europara ekartzeko inbertitu zuten.

“Kanpamentuetan gai izan dira herri berri bat eraikitzeke”

Larraitz Arkarazo erizain abadiñarrak hiru aste igaro ditu Greziako Kios irlan boluntario, ISHk bertan duen proiektuan



Larraitz Arkarazo, kanpamentuko atean.

Han egotea kartzelan egotea lez da eurentzat. Ez dakite pasaportea lortuko duten ala ez... Oso gogorra da.

Koronabirusak izan du eraginik euren egoeran?

Gaur egun 2.300 lagun daude kanpalekuan; hori da legez onartu-

tako kopurua. Baina egon izan dira 7.000 lagunetik gora. Lehen, irla osotik mugitu zitezkeen, baina, orain, ezin dira kanpamentutik kilometro bi baino gehiagora urrundu. Mundu bi guztiz desberdinak daude irla horietan. Zu kafe bat hartzen egon zaitezke herrigunean, eta zortzi kilometrora kanpamentua dago. Lotsagarria da, Europa denik ere ez du ematen!

Zein etorkizun ikusten diozu galari?

2015ean hasi ziren lehenengo errefuxiatuak hara ailegatzeko. Europar Batasuna partxeak ipintzen dabilela esango nuke. Laguntza medikoa, arropa, janaria... eskaintzen dizkie, eta hori ondo dago, baina inor ere ez doa arazoaren muinera; inork ere ez du interesik jatorrizko herrialdeetako gerra eta gatazkak konpontzeko. Hemendik ere badaude laguntzeko aukerak. Han jasotzen den material ia guztia, guk lanerako erabilitako osasun materiala, adibidez, hemendik bidalitakoa da, eta beharrezkoa da.

Bueltatuko zara hango kanpalekura?

Bai, oso esperientzia aberasgarria izan da. Oso panorama gordinak ikusi ditut, baina asko ikasi dut hango jendeagaz. Harritu egin nau antolatzeke duten gaitasunak. Kanpamentuetan gai izan dira herri berri bat eraikitzeke. Jende asko bakar-bakarrik ailegatu da hara, eta horrek batu egin ditu.



Zaldibarko gaztetxearen 17. urteurrena ospatzen dabilta

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko gaztetxeak hamazazpi urte bete ditu martxoaren 6an. Urteurrena ospatzeko, hile osorako ekintza sorta prestatu dute. Hurrengo ekintza martxoaren 20an izango da. Parkatu talde durangarrak kontzertua eskainiko du, 18:00etan; 21ean Jon Salaberri dokumentala eskainiko dute. Horrez gainera, artxiboko irudiekin gaztetxearen hamazazpi urteetako ibilbidea erakutsiko dute. Ospakizunean, zenbait aldarrikapenagaz ere bat egin dute. Besteak beste, Zaldibar Argituk martxoaren 6an eta mugimendu feministak martxoaren 8an deituriko mobilizazioetara batzeko deia egin zuten.

ATE IREKI BIRTUALA MARTXOAK 17 18:00

info gehiago, gure
webgune eta sare
sozialetan!



www.armeriaeskola.eus

“Mende bat biharrian”



**NAZIOARTEKOTZA
AUKERAK**

Europa/Mundurako bekak
Zikloak ingelesez



**METODOLOGIA
BERRITZAILEAK**

Erronketan oinarritutako
talde lana



ESKAINITZA ZABALA

Erdi eta goi mailako zikloak,
espezializazioak



**GERTUKO
HARREMANA eta
ORIENTAZIO
PROFESIONALA**



**LAN AUKERA
ZABALA**

Enpresa harreman estua



LAN POLTSA

Langile teknikoaren beharra



ArmeriaEskola^x

Baieztatu dutenez, baso-igel jauzkari espeziea aurkitu dute lehenengoz Otxandion, Iñola inguruko urmaelean

Urduñan eta Gorbeia inguruan aurkitu daitekeen anfibio horren bizi eremua Otxandioraino hedatzen dela baieztatu dute

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Orain lau urte Otxandion anfibioentzako urmaelak sortu zituztenean, Ambientalía 21 ingurumen aholkularitzako kideek susmo bat baieztatu gura zuten, bertako ekosistema sustatzeaz gainera: herriko lurretan baso-igel jauzkaririk bazegoen jakin gura zuten. Bada, baieztatu egin dute. Oso babestuta dagoen igel espezie hori Iñola zonaldeko urmaeletan aurkitu dute.

"Bagenuen susmoa, baina ez genuen uste hain azkar aurkituko genuenik", adierazi du Ambientalía 21eko Sergio Gallego kideak.

Europako hainbat zonaldetan "nahikotxo" aurkitu daitekeen espeziea da, baina Iberiar Penintsulan ez hainbeste. "Urduñatik behera ez dago baso-igel jauzkarriaren konstantziarik. Urduñan eta Gorbeia inguruan aurkitu da. Eta orain badakigu Otxandion ere badaudena", azaldu du Gallegok.

Inguru horretan urmael gehiago sortu gura dute espezie horren ugalketa sustatzeko.



Anbientalia 21eko kideak Otxandioko urmaeletan azterketak egiten.

Uhandre alpetarra

Presazelai inguruan urmael gehiago dago eta hango askotariko espezieen artean uhandre alpetarra aurkitu dute. Babestuta dagoen espeziea da. Kasu honetan ere, lehenengoz identifikatu dute espezie horretako uhandre bat Otxandion, eta gertuko jarraipena egingo diote.

Inguru horretan urmael gehiago sortu gura dute, espezie horren ugalketa errazteko

Anfibioak "ez ukitze" deia

Sarritan gizakia da animalien etsairik handiena, gura barik bada ere. Gallegok ohartarazi du anfibioak ukitzea arriskutsua izan daitekeela animalientzat. "Anfibioek azaletik arnasten dute eta, ukitutuz gero, gaixotasunak transmititu ahal dizkiegu". Anfibioak "ez ukitze" da gomendioa, edo, gutxienez, osasun-neurriak hartzea, eskuak eta abar desinfektatuz.



Bigarren urtez, ezingo dute batzar nagusia egin Erdoitzako Ama jubilatuen elkarte

IZURTZA • J.D.

Urtero-urtero, Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak urteko batzar orokorra egiten du San Jose egunaren bueltan. Baina pandemia heldu zenetik eta batzar jendetsuak galarazita daudenetik ezin izan dira batu: iaz ez zuten batzarrik egin eta aurten ere ez dute egingo.

Edozelan ere, urteko kontuak betiko moduan egin eta dagokion lekuan aurkeztu dituzte, ohi duten moduan diru laguntzak eta bestelakoak lortzeko. "Aurten erraza izan da kontuak egitea, lokala itxita dagoelako eta ez dugulako ezer ere antolatu", azaldu du jubilatuen elkarteko Karmelo Irastorzak. Gaur egun 42 bazkide dituzte.

Mallabarrena industrialde azpitik doan erreka zabaldu egingo dute uholde arazoak konpontzeko

Euri asko egiten duenean errekek gainezka egiten du industrialde horretan, eta inguruko pabilioietan kalteak eragiten ditu

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko Mallabarrena industrialdetik Artua izeneko erreka pasatzen da. Inguru horretan, erreka lurpetik igarotzen da eta industrialdearen azpitik doa. Horrek uholde arazoak sortzen ditu eta euri asko egiten duenean errekek gainezka egin eta pabilioietan arazoak sortzen ditu. Behin baino gehiagotan gertatu da hori, udal iturriek azaldu dutenez.

URA agentzia astelehenean hasi zen lanean lurpetik doan erreka bistartzeko

URA agentzia astelehen honetan hasi da lanean arazo hori konpontzeko. Besteak beste, orain lurpetik doan erreka bistaratu egingo dute eta gaineko aldetik libre utziko dute.



Makina hondeatzailea Mallabarrena industrialdean lanean, eguazteneko irudian.

Hontza Museoa apurka-apurka berriro bistariak hartzeko prest

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Hontza Museoa itxita egon da pandemiaren 'hirugarren olatuan'. Izan ere, museora joaten diren bisitaririk gehienak kanpokoak ziren, eta mugikortasuna ondoko herrietara mugatuta zegoen. Martitzenez, ostera, libreki mugitu daiteke EuskalAutonomia Erkidegoan, eta Hontza Museoa prest dago berriro ere bisitariak hartzeko. Aurretik eguna eta ordua hartu behar dira eta, oraingoz, ezingo dira seiko taldeak baino handiagoak sartu barrura. Hainbat familiak museoa bisitatzeko interesa erakutsi dute dagoeneko, eta apirilaren 8rako Sopelako ludotekaren erreserba bat dute, Museoko arduradunen esanetan.

Bestalde, lanean jarraitzen dute etorkizunari begira. Biltegi moduan erabiltzen zituzten gela bi hustu dituzte. Espazio hori askotariko elementuekin jantzi eta erakusketara bideratzea da asmoa, baliabideak edo bitartekoak lortzen dituztenean.



Gremioen gida

Zurgintza
leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

**UNAI GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
Instalataile baimendua
659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

**Ubide**
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza
946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza
BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA
info@aldekoaotalora.com
Zubiaurre, 8 IURRETA
944 202 768
Arzubia 10 B Industrialedea, 13-14 pabilioiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

Zurgintza

**ATERPE** AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak
Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu
Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!







www.gualbiasesores.com

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, bere enpresako kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

'34 leiho', Berrizko emakumeak eta euren bizipenak lau haizetara zabaltzen dituzten liburua eta erakusketa

Erakusketa martxoaren 26ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean. Liburua herriko zenbait lekutan erosi daiteke, 10 euroan



gonbidatzen dugu jendea. Eurak ere feministak direla ikustera", jarraitu du Ariztondok.

"Eskerrik asko bihotzez zuen bizitzako eta etxeko ateak zabaltu dizkiguzuen emakume guztiei"

Eskerrak emakumeei

Bestalde, Azeri Gorriak talde feministako kideek eskerrak eman dizkiete proiektua posible egin duten emakume guztiei. "Emakume guztiak oso balienteak izan dira, ez baita erraza kamera aurrean jarri eta norberaren bizipenez berba egitea. Eskerrik asko bihotzez zuen bizitzako eta etxeko ateak zabaltu dizkiguzuen emakume guztiei", esan du Carok.

Hainbat lekutan eskuragai

Erakusketa bazkari baten bueltan sortu zen, eta proiektuaren emaitza martxoaren 26ra arte egongo da ikusgai, Berrizko Kultur Etxean. Horrez gainera, gura duenak liburua ere eskuragarri du herriko zenbait lekutan. 10 euro balio du.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martxoaren 8an, Berrizko Azeri Gorriak-eko kideek 34 leiho liburua kaleratu dute. Herriko 33 emakumeren bizipenak jaso eta hauen lana bistaratzeari helburu duen lana da, besteak beste. "Emakumearen presentzia herrian zelan dagoen

irudikatu gura genuen, ez bakarrik lan munduan. Emakume bakoitzak bere bizitza du, gure borroka pertsonalak ditugu eta hori irudikatu eta kaleratu gura genuen", adierazi du Azeri Gorriak taldeko Andikona Ariztondo kideak. "Gainera, honegaz erakutsi gura izan dugu

denok izan gaitezkeela feminista, eguneroko ekintzetan feministak garela, bagarela, nahiz eta askotan kontziente izan ez", gehitu du Miriam Caro feministak.

Azeri Gorriak-ekoek asteon aurkeztutako lanak erakusketa bat du oinarri: 34 leiho. Erakusketa

Azeri Gorriak talde feministako hainbat kide.

herriko 33 emakumek eta ispilu batek osatzen dute. "Ispilua zu zeu izango zinateke, ispiluaren aurrean jartzen den hori", esan dute talde feministakoek. "Ispiluaren aurrera gonbidatzen dugu jendea, bere buruagaz gogoeta egin dezan. Alderdi feminista hori badutela ikustera

Elorrioko Udalak parke berrirako izenak proposatzera animatu gura ditu herritarrak

Udalak martxan ipinitako prozesuan martxoaren 26ra arte parte hartu daiteke



Buzkantz eta Montorra kaleen artean dago berdegunea.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak izen bat behar du Buzkantz eta Montorra kaleen arteko parke berrirako, eta, horretarako, iritzia eskatu die herritarrei. Elorriarrek zer proposamen dituzten jakin gura du, eta parte-hartze prozesu bat martxan ipintzea erabaki du. "Elorriarren iritzia jaso eta parke berriari izena emateko dituzten ideiak ezagutu gura ditugu. Ariketa polita izango da ideiak batzea eta guztion artean izena aurkitzea", azaldu dute Elorrioko Udaleko arduradunek.

Proposamenen bat duten herritarrek martxoaren 26ra arte dute horretarako aukera. www.elorrio.eus webgunean dagoen estekan klikatuta aurkeztu daitezke proposamenak.

Berdintasun plana garatzeko lehenengo urratsa Atxondon

Atxondoko Udaleko kideek azaldu dute planeko proposamenak herriko elkarteei aurkeztuko dizkietela

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, azken osoko bilkuran urrats bat eman zuten herriko Berdintasun plana garatzeko. "Zaintza lan guztien garrantzia nabarmendu eta pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortuko duen erantzukidetasun handiagoko eredu baterantz aurrera egiteko garaia da, eta, udalak, aho batez, beste urrats bat eman du", adierazi du Atxondoko Udalak. Udaletik azaldu dutenez, Maria Aranguez zinegotziak gidatuko du proiektua, eta oposizioaren babesagaz osatuko du. Gainera, proposamenak herriko elkarteei aurkeztuko dizkietela esan dute.

"Gaur egun, zaintza lanen banaketak gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna areago-

tzen jarraitzen du, ordainduak izan ala ez, eta, nahiz eta lehenik pairatzen genuen egoera izan, pandemiak egoera hori areagotu besterik ez du egin, eta zaintza sistemaren prekaritatea azalerratu, lehenik zeuden desberdinta-

"Gure esku dago beste eredu sozial baterantz aurrera egiteko borrokan jarraitzea"

sunak areagotuz. Gure esku dago gizarte eta administrazio publiko lez egoera hori iraultzea eta beste eredu sozial baterantz aurrera egiteko borrokan jarraitzea", adierazi dute udaletik.

Garaiko Udalak auto elektrikoak kargatzeko gune bat atondu gura du

Umeentzako txintxaunak dauden gunearen ondoan ipintzea aurreikusi du, txintxaunen ondoko partzela batean. Instalazioak ez du data zehatzik, baina aurten egitea espero dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak jasangarritasunari begirako pausoak ematen jarraitu gura du. Hainbat dira esku artean dituen proiektuak, eta Erramun Osa alkateak euretariko bat zein izango den aurreratu du. Udalak auto elektrikoak kargatzeko gune bat atondu gura du herrigunean. Osaren esanetan, umeentzako txintxaunak dauden eremuaren ondoan atonduko litzateke gunea, ondoko partzela batean. Oraindino ez dute data zehatzik finkatu

instalazioa egiteko, baina aurten egingo dela aurreratu du alkateak.

Gune hori egiteak beste mugarri bat ipiniko du Garaiko Udalak jasangarritasunaren alde hartutako bidean. Gune berriak gas emisioak gutxitzeko tresna bat

Erramun Osa: "Txikitik bada ere, hainbat gauza egin dezakegu ingurumen kalteak konpontzeko"

eskainiko du. "Klima aldaketari buruz gabiltzanean, badirudi kanpora begira ari garela. Iruditzen zait gure zilborrari begiratu behar diogula, esanez, zer egin dezakegu guk? Txikitik bada ere, egin dezakegun hainbat gauza dago emisioak murrizteko edo ingurumen kalteak konpontzeko", azaldu du Osak. "Guk geuk hartu behar ditugu halako erabaki txikiak. Horrek aukera ematen diela besteei txiparaldatzen laguntzeko? Bada, primeran", gehitu du.



Kargatzeko gunea txintxaunen gunearen ondoan ipintzea aurreikusi du udalak.

Durangaldea asteen

Kontzentrazioa Juan Orobiogoitian, irakasle baten kontrako mehatxuak salatzeke

Iurreta | Azken asteotan hainbat gertakari izan da Iurretako Juan Orobiogoitia Institutuan, eta euretariko azkenak irakasleak kalera atera ditu. "Azken asteotan, kiroldegian apurketak, pintadak eta hainbat lapurreta izan ditugu. Baita irakasleen izenak agertzen diren pintadak ere. Gainera, horietako batean, irakasle baten izenaren ondoan 'hil zaitez' berbak ageri ziren. Hori onartezina da eta beharrezko ikusi dugu salatzea", adierazi dute Juan Orobiogoitia Institutuko ordezkariak.

Gertakari horiek salatzeke, batez ere irakaslearen kontrako mehatxua, eguazten goizean elkarretaratzea egin zuten eskolan. Elkarretaratzean, irakasleek eta hainbat guraso eta ikasleek parte hartu zuten. "Badakigu ikasle batek egin dituen pintadak, baina badakigu ere ikasleen ehuneko handi bat eredu-garria dena. Eredu-garriak direnez, elkartasuna adierazi digute eta kontzentrazioan egon dira babesa ematen. Elkarretaratzean hainbat guraso ere egon da, eta oso eskertuta gaude", gehitu dute. Horrez gainera, elkartasuna adierazteko beste ikastetxe batzuetatik ere deiak jaso dituztela azaldu dute.



AHTaren obretara doazen kamioiak herri erditik igarotzea polemika iturri izan da aste honetan Atxondon

Atxondo | AHTko lanak polemika iturri izan dira beste behin ere Atxondon. Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak salatu du AHTaren obretako kamioiak eskola aurretik pasatzen ibili direla, eta hori debekatzeko eskatu diote udalari. "AHTko obrak gure inguruan egiten dabilzan kaltea nabaria da. Egoera honi kamioiak eskola aurretik pasatzen hasi direla gehitu behar zaio orain", kritikatu dute.

Atxondoko Udalak ere berba egin du gaiaren inguruan, eta kamioiak AHTa eraikitzeke proiektuan ezarritako puntuetatik igarotzeko eskatu dio ADIFI. "Atxondoko hainbat kolektibok euren kezak helarazi dizkigute. Kamioien joan-etorriak dakarren arriskua ikusita, obren arduradunei eskatu diegu hitzartutako proiektua betetzeko eta gaituta dituzten sarbi-deak erabiltzeko", adierazi dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteke helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira.
Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



DURANGALDEAN ESTETIKAREKIN,

ZERIKUSIA DUEN NEGOZIORIK BADUZU,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON




Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian





LABIRINTOA

Labirinto honetan egin bidea jostailuei jarraituz.


ITZALAK

Tximeleta bakoitzari bere itzala dagokio.



DOMINOA

Marraztu dagokion
irudia lauki zurietan.



ZEIN DA?

Beheko aukeretatik zein
dagokio irudiko hutsune zuriari?





Hitzez eta Ahotsez

BERBALDIA **DURANGO :: Martxoak 16**

Lorea Agirreren berbaldiagaz hasiko dute Hitzez eta Ahotsez

Lorea Agirrek eskainitako *Maitasuna maiteminetik haratago* berbaldiagaz ekingo diote, martxoaren 16an, Hitzez eta Ahotsez literatur ekimenari. Ezinbestean, bizi dugun egoerara egokituta. Berbal-

dia Durangoko Arte eta Historia Museoan izango da, 18:00etan, eta lekua mugatuta dagoenez aurrez izena eman beharko da. Museoan bertan edo 94 603 00 20 telefono zenbakira deituta.

Martxoaren 12an

ABADIÑO musika
Bidane Txopitea Bilbao eta Iker Ruiz de la Alegria Medel, 19:00etan, Errota kultur etxean. Gero, **Onintza Azkarate Retolaza, Amaia Jaio Apellaniz eta Joana Keen Moronatti**.

BERRIZ antzerkia
‘Italino, Gran Hotel’ (Companiya La Tal), 17:00etan, Kultur Etxean.

MALLABIA tailerra
Gizonen desboteretzea, 17:00etatik 19:00etara, Kontzejuzarrean.

ZORNOTZA antzerkia
‘¿Qué fue de Ana García?’ (Pabellón N°6), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 13an

BERRIZ antzerkia
‘Atzerrian lurra garratz’ (Artedrama), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO lehiaketa
Abesti Feministen III. Lehiaketa, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO bisita gidatua
Argiñetako Altxorra bisita gidatua emakumeentzat. 11:00etan (gastelaniaz) eta 12:00etan (euskaraz). Izena emateko: turismo bulegoan, berdintasuna@elorrio.eus, 94 682 01 64 edo 94 657 08 09.

ELORRIO musika
Joseba B. Lenoir Gang, 19:00etan, Arriola antzokian.

OTXANDIO solasaldia
‘Wiki emakumeak’ (Marisa Barrena), 18:30ean, Kultur Etxean.

Martxoaren 14an

ELORRIO antzerkia
‘Italino, Gran Hotel’ (Companiya La Tal), 16:00etan, Arriolan.

DURANGO antzerkia
‘Atzerrian lurra garratz’ (Artedrama), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

MALLABIA antzerkia
‘Alter ego’, 12:30ean, frontoian.

OTXANDIO antzerkia
‘Erradikalak ginen’, 18:30ean, gimnasioan.

ZORNOTZA antzerkia
‘Angela, verso suelto de Iparragirre’ (Karabansarai Produkzioak), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 16an

DURANGO film emanaldia
XVIII. Zinegoak. Bilboko gaylesbitrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdia, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ZORNOTZA zinekluba
‘Queen&Slim’, 18:30ean, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 18an

ABDIÑO dokumentala
‘Anderea’ (Yolanda Mazkianan Zelaia), 19:00etan, Errota kultur etxean.

ZORNOTZA musika
Bitartean Folk, 19:00etan, Zelaietako kontzertu gelan.

Martxoaren 18ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa
‘Emakume baserritarrak. Itsas landa inguruneke emakumeak’ (Gaittun Elkarte), Herriko plazan.

Martxoaren 19an

ZORNOTZA antzerkia
‘Losers. Galtzaileak’ (Txalo Produkzioak), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoan zehar

ABADIÑO erakusketa
‘Naturaren uneak nire kamaratik. Momentos de la naturaleza tras mi objetivo’ (Joseba Carcavillaren argazkiak), Errota kultur etxean.

Zinema

:: Abadiño
ERROTA KULTUR ETXEA

• **Madame Curie**
zapatua 13: 19:00
• **Barry, el rey de la disco**
domeka 14: 17:00

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **La boda de Rosa**
barikua 12: 19:00
domeka 14: 19:00

:: Durango
ZUGAZA

• **Minari. Historia de mi familia**
barikua 12: 18:30
zapatua 13: 19:00
domeka 14: 19:00
astelehena 15: 18:30
martitzena 16: 19:00
eguzatena 17: 19:00
• **Non dago Mikel?**
barikua 12: 18:30
zapatua 13: 17:15/19:30
domeka 14: 17:15/19:30
astelehena 15: 17:30/19:30
martitzena 16: 19:30
eguzatena 17: 19:30
• **Solo las bestias**
barikua 12: 18:30
zapatua 13: 19:00
domeka 14: 19:00
astelehena 15: 18:30
martitzena 16: 19:00
eguzatena 17: 19:00



• **Raya y el último dragón**
zapatua 13: 17:15
domeka 14: 17:15
• **Kranston ikastetxea. Munstroen eskola**
zapatua 13: 17:15
domeka 14: 17:15

:: Elorrio
ARRIOLA

• **Las mil y una**
domeka 14: 19:00
astelehena 15: 19:00

:: Zornotza
ARETOA

• **Entre nosotras**
zapatua 13: 19:00
astelehena 15: 19:00
• **Barry, el rey de la disco**
zapatua 13: 12:00

“Bertsozaleak bakarrik ez, bertsolariok ere bertso gosez gaude”

Elorrioko gaztetxeko saioagaz, zapatuan 'Durangaldea uztabarritzen' bertso zirkuitua hasiko da; hamaika saio izango dira



BERTSOLARITZA • ARITZ MALDONADO
Hamaika bertso saio hamaika herritan, formatu desberdinetan eta dozenaka bertsolarigaz. Durangaldeko Bertso Eskolak 'Durangaldea uztabarritzen' bertso zirkuituari emango dio hasiera asteburuan, Elorrioren; lehenengo saio hori gaztetxean izango da, 18:30ean; Iruri Altzerrekak, Txaber Altubek, Erika Lagomak eta Aitor Estebanek egingo dute bertsotan, Iker Apraizek ipiniriko gaien inguruan. Bertso eskolako kide diren Ander Elorriaga Arestik (Durango, 1999), Leire Vargas Nietok (Durango, 2002) eta Igor Galarza Intxaustik (Abadiño, 1998) azaldu dituzte zirkuituaren nondik norakoak.

Anbizio handiko ekimena ipini duzue martxan.
Igor Galarza: Uste dugu dinamika honek aukera asko eskaintzen duela. Aretotako saioak ditugu, eremu itxietakoak, edo ekainean eta uztailan egiten direnak, plazako saioak. Bertso Eskolarentzat ere polita da ikustea zenbat jende animatu den ekimenara. Honek jendea martxan ipini du eta hori onuragarria izango da Durangaldearentzat ere.
Hainbeste neurri eta mugekin, eremu asko baztertuta sentitu da sasoi honetan; adibidez, Elorrioko gaztetxea bera. Hori dela-eta, gaztetxera joateak badu esangura bat. Urtean bertso saio bi egiten dituzte, baina aurtan bat ere ez, eta,

beraz, hara joateak badu helburu hori ere.
Leire Vargas: Saio gutxiko sasoi da hau. Izurritearen kontuagaz, oraindino gehiago, eta betikoak gara galtzen irteten dugunok. Horrez gainera, bada garaia guk ere plazak edukitzeko. Hain saio gutxi egonda, bertsolari gutxi batzuek baino ez dituzte plazak. Beraz, ikusi dugu lekua edukitzeko modua norberak egitea dela.
Bertso saioak suspertzeko helburua duzue. Zelan eragin dio izurriak bertsolaritzari?
Ander Elorriaga: Askoz ere saio gutxigo daude, baina bertsolaritzak badu gauza handi bat bere alde: gutxi behar du saio bat muntantzeko. Dozena erdi bat lagunen kon-

promisoagaz, mikrofono eta aulki batzuekin, eta diru apur batez, saio bat antolatu daiteke eta zaleak disfrutatu dezake. Ez da behar su artifizialik edo lehoi-hezitzaileak disfrutatu ahal izateko.

I. G. : Batez ere, formatu konkretu batzuei eragin die, bertso bazkari eta afariei, esaterako. Afariak zuzenean ezin dira egin, eta bazkariak ere hala moduz. Formatu horiek guztiz galdu dira eta kostatuko da berriro ere berreskuratzea.

L. V. : Formatu berriak ere sortu dira, sare bidezkoak, esaterako. Baina alde ekonomikotik begiratuta, ezin da etekin handirik atera. Horri gehitu txapelketak-eta atzeratu egin direla. Oraindino prekarioago dago bertsolaritza.

Zelan doa Bertso Eskolaren jarduna?

I. G. : Elkartzen jarraitu dugu, ahal izan dugunean eta ahal izan den moduan, matematikak egiten (barreak).

A.E. : Interneten bitartez ere egin ditugu saioak, eta horrelakoak baliagarriak izan dira, haria ez galtzeko behintzat.

Bertso gosez da bertsolaria?

L.V.: Bai, bertsozaleak lez, saio gutxi dagoelako, eta daudenak sektorizatuta daude, gainera. Beste esparru batzuetan behar bada, profesionalak edo puntakoak direnei ez die egoera honek hainbeste eragin, baina bertsolaritzan oso ona den jendea ere plazarik barik dago.

A.E.: Bertsozaleak bakarrik ez, bertsolariok ere bertso gosez gaude. Argi ikusi da, guztion konpromiso hori egonda, zirkuitua egitea posible dela. Eskertzekoa eta poztekoa da hori. Esango nu-

Bertso bazkari eta afarien formatua guztiz galdu da eta kostatuko da berriro ere berreskuratzea

ke, gainera, azkenaldian ez dela horrelako zirkuiturik ikusi bertsolaritzan, eta oraindino gutxiago norbere kabuz eginiko zerbait izanda.

I.G.: Eremu seguru bat eskaintzea eta ganoraz egindako zirkuitu bat egitea da gure helburua. Bada sasoi erakusteko kultura eta bertsolaritza seguruak direla.

Durangaldea uztabarritzen

- **MARTXOAK 13**, Elorrioko gaztetxean, 18:30ean.
- **MARTXOAK 27**, Durangoko Sorginolan, 18:30ean.
- **APIRILAK 16**, lurretako Askondo plazan, 19:00etan.
- **APIRILAK 24**, Zaldibarko gaztetxean, 18:30ean.
- **APIRILAK 30**, Zornotzan, 19:00etan.
- **MAIATZAK 8**, Otxandion, 18:00etan.
- **MAIATZAK 29**, Berrizko Kultur Etxean, 18:00etan.
- **EKAINAK 12**, Zornotzan, 18:00etan.

- **EKAINAK 19**, Mallabiko parkean, 18:00etan.
- **UZTAILAK 2**, Abadiñoko Errota kultur etxean, 19:00etan.
- **UZTAILAK 10**, Durangon, 18:00etan.



Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

LIBURU AURKEZPENA ASISKO URMENETAREKIN

MARTXOAK 25
18:30 ETAN
IBARRETXE KULTUR ETXEAN

*SARRERA GONBIDAPENAREKIN

Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTeka

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**

"Sekulako aldeia igarri nuen 'Argazki matadoia' egitasmoan parte hartuta; urtebetean egunero zerbait eginda asko ikasten da"

Maitane Totorikaren argazkiek osaturiko 'Urte bat eta kamera bi altzuen' erakusketa martxoa amaitu artean egongo da ikusgai lurretako Oreka tabernan



Totorika, atzean erakusketa duela.

ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO
Maitane Totorika Del Amok (Iurreta, 1999) altzoan kamera bigaz egin du urtebete, kamera analogikoa baina, eta digitala bestea, eta horiekin ateratako zenbait argazki aukeratauta erakusketa osatu du Iurretako Oreka tabernan: *Urte bat eta kamera*

bi altzuen. Erakusketa martxoan zehar egongo da ikusgai. Aurretik, beste egile iurretarrak batzuen argazkiak ere erakutsi dituzte, eta aurrrera begira ere horrela jarraitzeko asmoa dute antolatzaileek.

Iluntzeak dira Totorikaren argazki askotako protagonistak,

Cádizera (Andaluzia, Espainia) eginiko bidaia batean horiez mai-temindu osten; Los Angeleseko Malibun (AEB) ateratako argazki bat ere badago. "Nire bizitzako iluntzerik politena han ikusi nuen. Iluntze mota piloa daude, baina, batez ere, eguzkia sartzen dabilen

momentu hori edo sartu eta bost minutura agertzen diren kolore horiek izugarri gustatzen zaizkit", adierazi du argazkilari iurretarrak. Iluntzeek gainera, loreen koloreak argazkietan harrapatzea ere gustatzen zaio. Kamera analogikoak eta digitalak ematen

dizkioten aukerekin jolastea ere atsegin du. "Analogikoa gurasoek erabiltzen zuten niri argazkiak ateratzeko. Automatikoa da, baina argazkiak berezi egiten dituela esango nuke. Gaur egun, gurago dut eskuz egin, horrela argazkiei neure ukitua ematen diet-eta, baina analogikoek ere badute bere zera hori ere", gaineratu du.

"Argazki matadoia", eskola

Hain zuzen ere, ekinaz zaletasunari zukua ateratzen ari zaio. *Argazki matadoia* egitasmoan zehar ikasitakoa nabarmendu gura izan du argazkilariak. "Ordukoan kamera digitalagaz nengibilen gehiago, eta, batez ere, gogoan dut zenbat ikasi nuen Antton Izagirregaz eta Ainara Petitegaz", esan du. Hain zuzen ere, egitasmoaren helburua egunean argazki bat ateratzea eta publikatzea zen. "Sekulako aldeia igarri nuen *Argazki matadoi*agaz, urtebetean egunero zerbait eginda asko ikasten delako". Iazko martxo eta apirileko itxialdi sasoian ere, antzerako terapia erabili zuen iurretarak. "Sortzaile lan desberdinak egin nituen, eta horiei eta bestelako gauzei argazkiak ateratzen hasi nintzen. Argazki hauek baliagarriak izango dira momentu horiek gordetzeko", azaldu du Totorikak.

Gai librean

Orain, negar

"Bai, baina ni ez naiz batere triste edo gaizki egotekoa...", ziotan lagunak. Lehenago bereziki hurko sentitu zuen gaixotasunaren inguruko albiste bat zuen entzuna, eta hark beragan eragin izana ulertzekoa zela iradoki nion nik. Bekatua balitz bezala hitz egiten zuen goibel egoteaz, norberak egiten duen hautu bat bailitzan ia, eta hautu okerra betiere.

Ingurura begiratzen hasi eta begien bistara jaurtitzen dizkiguten irribarreak eta argazki alaien inbentarioa egiteari ekin nion: iragarkietan (non produktu bat eskuratzeak arrunt zoriontsu egingo gaituela erakusten diguten), telesailetan (non malkoak usu bihurtzen diren parodia edo eraikitako pertsonaiaren izaera dramatikoaren erakusgarri), eta bereziki sare sozialetan, non guk geuk eraiki dugun alaitasunaren eskaparetea,



Leire Vargas Nieto
Sortzailea

Ezjakintasunez eta mugatzez jositako egoera pandemikoan herritarrok bizi dugun ezontsaren erakusgarri ote?

Geure burua engainatzen gabilta negarrari eustean tristura desagerrarazten ari garela pentsatuz


ona eta desiragarria den guztiarekin lotzen diren keinuak erreproduzitzeko espazioa eta neurrien ertzetan puntako bihurtzen diren planez gainezka gaude-la erakustekoa. Eta nago ez ote diguten sinetsarazi debekatuta dagoela triste egotea, ez ote dugun elikatu *zoriontasunaren* kultura bat.

Baina geure burua engainatzen gabilta negarrari eustean tristura desage-

rrarazten ari garela pentsatzen badugu; kontrara, pilatzen-pilatzen doaz gai sukoiak gure sabeletan, eztandarako txinparta noiz iritsiko. Horrela ikusten dugu, esaterako, azken hilean bosten bat egin dutela gora elikadura nahasteei lotutako ospitaleratzeek, irensten saiatutako barne-ezinegona kanporatzeko bide bihurtzen diren jokaerek eraginak. Ezjakintasunez eta mugatzez jositako egoera pandemikoan herritarrok bizi dugun ezontsaren erakusgarri ote? Agian, ordea, txanda heltzen zaionean tristeziari lekua uzten, izena jartzen eta ulertzen irakatsiko baligute, zertxobait desberdina litzateke egoera.

Ruperrek abesten du ingurua eta norbere burua ezagutzeaz mintzo den kantuan "orain barre, orain negar", hain baita garrantzitsua baten esanahia ulertzeko bestea sentitzea. Eta albisteak minez, mugaz eta galeraz tindatuta daitozenean...

Euskal kultur agenda BERRIA



[Berria.eus/zerbitzuak/agenda](https://berria.eus/zerbitzuak/agenda)

berria

Informatzeak zenbat balio duen



Javier Bodegas Cañas
Txirrindularia
LEMOIZ | 1957

LASTERKETAKO DATUAK

- **Lehenengo aldia:** 1931
Irabazlea: Ricardo Montero
- **Azkenengo aldia:** 2009
Irabazlea: Igor Anton
- **Gehienetan irabazi duena:** Leonardo Piepoli (4 bider)
- **Gehienetan irabazi duen euskalduna:** Marino Lejarreta (birritan)

“Lejarretak irabazten zuenean, jendea zoratu egiten zen”

Javier Bodegas lemoiztarak Urkiolako Igoera txirrindularitza lasterketa mitikoaren historia jaso du liburu berri batean

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Urkiolako aldatsak txirrindularitza protagonista izan dira. Urte askoan, sasoiko izarrik handienak zaleek egindako pasabidearen artetik ibiltzen ziren Urkiolako Igoeran. 80 urte iraun zuen etapa luze hori 2009an amaitu zen. Orain, memoriari eusteko helburuz, Javier Bodegasek (Lemoiz, 1957) lasterketa horren historia batu du 'Historia de la subida a Urkiola' liburuan. Durangoko Hitz eta Urrike liburu dendetan erosi daiteke, eta baita www.urtekaria.com webgunean ere.

Liburua idaztea zure ekimen propioa izan da?

Txirrindularitza betidanik gustatu izan zaigun taldetxo bat gara, afizioagaitik egiten dugu eta txirrindularitzaren gaineko 32 bat liburu idatzi ditugu. Beti gabiltza istorioak eta datu historikoak bilatzen eta batzen: egunkarietan, artxibategietan, liburutegietan... Informazio hori gorde egiten dugu argazkiak lortu arte, eta dena daukagunean liburu forma ematen diogu.

Liburuak urterik urteko edizioen kontakizun baten egitura dauka?

Bai, eta edizio bakoitza honela banatu dugu: aurrekariak, lasterketaren kronika, sailkapenak eta anekdota bat. Edizio guztietako anekdota bana jaso dugu.

Kontatuko diguzu anekdota horietariko bat?

1931ko lehenengo ediziokoa kontatuko dut. Txirrindulariak trenetan etortzen ziren Bilbotik. Bakoitzak bere bizikleta zekarren. Kontua da antolatzaileek ez zutela kontuan hartu bizikletak tren berezi batean baino ezin zirela garraiatu. Lasterketaren hasiera atzeratu egin behar izan zuten txirrindulariak heldu arte. Ez ziren edozein txirrindulari, profesionalak ziren, oso onak.

Nondik ateratzen dituzue argazkiak?
Betidanik ibili gara argazkien bila, honi eta hari eskatzen, eta lehenengo aldiak nahiko artxibo polita daukagu. 60ko hamarkadako batzuk egunkarietatik utzi dizkigute. 80ko eta 90eko hamarkadetakoa argazkiak Durangoko Photosol argazki dendaren eta hango Jose Luis Angoitaren bitartez lortu izan ditugu. Sasoi batean, astero joaten nintzen berarengana. Argazki askoren negatiboak zituen. Negatiboak ikusi eta batzuk aukeratzen nituen. "Etorri datorren astean, eta paperean edukiko dituzu", esaten zigun. Pertsona itzela zen eta zenbat lagundu zigun! Liburua berari eskaini diogu.

Noiz eta zelan sortu zen Urkiolako Igoera?

Orduan, bazegoen moda bat, lasterketa mota bat, Frantziatik zetorrena: 'Igoerak hotz-hotzean' deitzen zen. Hau da, lasterketa osoa Igoera bat zen. Horregaitik, lehenengo aldiak Mañarian hasten ziren eta las-

Ez pentsa Urkiolako Igoera euskaldun askok irabazi dutenik. Igor Anton eta Iban Mayo izan ziren beste bi. Euskaltel-Euskadigaz irabazi zuten"

terketaren izena ez zen 'Urkiolako Igoera', honako hau baizik: "Igoztailerik onenaren kriteriuma". Lehenengo aldia 1931n izan zen

eta Sociedad Ciclista Bilbainak antolatu zuen. Gerora, Duranguesak hartu zuen ardura.

Zelan azaldu dakioke Urkiolako Igoera zer zen ezagutu ez duen gazte bati?

Jai bat zen, txirrindularitzaren inguruko ospakizun bat, urtero antolatzen zena. Urterik onenetan jende pilo batzen zuen.

Zuretzat, zeintzuk izan ziren aldirik berezienak?

Marino Lejarretaren garaipenak. Lejarretak irabazten zuenean,

Urterik onenetan, jendetza batzen zen Urkiolako aldatsetan, eta lasterketaren aurretik askotariko ekintzak antolatzen ziren, giroa berotzeko. Esaterako, 1964an, Mari Carmen Diaz de Lezana amurriarra Urkiola igotzen ikusi zuten bertan zeudenek. Gaur egun ohikoa den irudia ezohikoa zen orduan: emakume bat bizikleta gainean, eta, gainera, Urkiola mendatea igotzen. "Jende guztia aho zabalik utzi zuen. Orduan, emakumeek ez zuten esku-biderik federatuta egoteko, eta ez zegoen lasterketarik eurentzat", dio Bodegasek.

Argazkian, Julio Jimenez urte hartako irabazleagaz eta lehenengo aldia irabazi zuen Ricardo Monterogaz batera ageri da Mari Carmen Diaz de Lezana.

Mari Carmen Diaz de Lezana, zaleak "aho zabalik" utzi zituen emakumea



Julio Jimenez, Ricardo Montero eta Mari Carmen Diaz de Lezana 1964an. ZIKLIAMATORE

jendea zoratu egiten zen. Karisma zuen. Ez pentsa Urkiolako Igoera euskaldun askok irabazi dutenik. Igor Anton eta Iban Mayo dira beste bi. Biek Euskaltel-Euskadigaz irabazi zuten. Mayorena izan zen lehenengoa, eta aldi hura ere berezia izan zen. **Lasterketa hau bueltatzea ezinezko ikusten duzu?**

Bai. World Tourra sortu zenean filosofia bat zuen: txirrindularirik onenak lasterketarik onenetan. Momentu bat kenduta, Urkiolako erdi mailako lasterketa zen eta une horretatik aurrera ez ziren onenak etortzen. Ezinezkoa zen berriro ere Tony Rominger, Claudio Chiappucci eta halako txirrindulariak ikustea. Horri gehitu behar zaio Eusko Jaurlaritzak egin zuena. Urkiolako Igoera desagertu zenean, 2009an, Jaurlaritzak diru bat inbertitu zuen Espainiako Itzulia Euskal Herritik igaro zedin. Eta euskal lasterketak albo batera utzi zituen; bizitza osoan antolatzen ziren probak erdi hilda geratu ziren. Helburua izena zabaltzea bada, bale, ulertu daiteke, baina helburua euskal txirrindularitza sustatzea bada, ez du zentzurik.



Orain arte, Durangoko Kulturalak 16 gol sartu eta beste hainbeste jaso ditu. **LUIS ITURRIOZ**

Partidu bi Durangoko Kulturala gora ala behera begira ipiniko den jakiteko

Borroka horretan, aurkari zuzena den Baskonia taldea hartuko du asteburuan etxean

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Hurrengo partidu biek erabakiko dute Durangoko Kulturalaren datozen hileetako ibilbidea: aldeko emaitzekin igoera fasera sailkatuko da; bestela, jaitsiera ekiditeko borrokatuko da.

Aurreko denboraldiekin alde-ratuta, liga desberdina izan da. Hirugarren Maila multzo bitan banatuta dago, eta, bakoitzean, 11 talde baino ez daude. "Partidu bat irabazita, ematen zuen gorantz begira zeundela, eta bat galduta justu kontrakoa", uste du Jon Larreategi Kulturalako entrenatzaileak. Tes-

tinguru horretan, Kulturalari "erregulartasuna" falta izan zaio, Larreategiren ustez: "Kosta egin zaigu partidu bi segidan irabaztea".

Seigarren tokian edo hortik aurrera sailkatzen direnak Bigarren B Mailara igotzeko borrokan sartuko dira, eta handik beherakoak jaitsiera fasean. Kulturala zazpi-garren dago, erdi-erdian. Puntu bi goitik du seigarren dagoen Baskonia, eta, hain zuzen ere, asteburu honetan, etxeko azken partiduan, Basauriko taldea hartuko du Tabiran. Garaipen bategaz aurrea hartuko lioke eta azken partiduan

bere esku izango luke sailkapena, beste emaitzen menpe egon barik.

Kulturalak 16 gol sartu ditu orain arteko 19 partiduetan, eta eurretari 10 jokalaria bik sartu dituzte. Simon Aranguren getariarrak 6 daramatza eta Adrian Abasolo mañariarrak, 4. Aranguren baja izango da datozen partidu garrantzitsu bietan, zaintiratu batengaitik. Abasolo ere lesionatuta egon da, baina seguruenik erreku-peratu egingo da asteburuari begira.

Kontuan hartzeko datu inportante bat: talde guztiek lehenengo faseko puntuekin ekingo diote bigarrenari.

Karmele Gisasola omendu dute bere lorpenengaitik

Joan zen domekan Mallabiko pilotalekuan egindako ekitaldian oroigarri bat eta lore sorta bat eman zizkioten

HERRI KIROLAK • J.D.

Bizkaiko eta Euskadiko Ingude-jasotze Txapelketak irabazi izana dago Karmele Gisolaren lorpenen artean. "Oso esker oneko" dagoela adierazi eta herri kirolean emakumeen presentzia indartze-

ko lanean jarraitu behar dela ere gehitu du. "Herri kirolean neska gutxi dago oraindino. Zailtasunak daude txapelketa batzuk aurrera ateratzeko, emakume faltagaitik. Beraz, arlo horretan lanean jarraitu behar dugu", adierazi du.



Atezainei zuzenduriko lehenengo kanpusa egingo dute Zaldibarren

FUTBOLA • J.D.

Atezainen eskola sortzeko lehenengo pauso moduan, Andres Leria atezain ohi eta arloko espezialistak atezain izan gura duten gazteei zuzendatutako kanpusa antolatuko du. Aste Santuan

izango da, Zaldibarko Solobarria futbol zelaian. Txanda bi egongo dira: martxoaren 29tik 31ra (100 euro) eta apirilaren 6tik 9ra (120 euro). Txanda bietan parte hartu daiteke.

Goizetan egingo dute, 09:00etatik 14:00etara, eta 2004 eta 2014. urteen arteko gazteei zuzenduta dago. Izen-ematea helbide elektroniko honetan egin daiteke: escueladeporterosandresleria@gmail.com.

Jokaldia

Martxan!

Berriro ere martxan da Eskola Kirola! Entrenamendu saioak hasi ditugu, eta zer ondo gainera! Beharrezkoa zen. Ezinbestekoa, esango nuke. Saskibaloian, gure lagunekin aritzean, zer ondo pasatzen dugun! Eskola Kirolean eta kirol federatuan, bietan.

Oraindik COVID-19a ez daukagu urrun. Pandemia egoera hau luzerako doala ematen du, eta, horren aurrean, gure kirolaz gozatzeko neurriak hartu behar ditugu. Geure burua zaindu behar dugu, baina horrek ez digu eragozten gure kirolaz gozatzea. Ondo pasatzea baita helburua.

Gure taldean zelan egiten dugu? Bakoitzak bere baloiarekin arituz, banakako teknika lantzen dugu jolasen bitartez. Gure entrenamendu orduan, ahalik eta denborarik gehien baloiare-



Unai Zamalloa
Zubiaurre
Saskibaloia

"Beharbada, Aste Santuko oporren ostean, egoerak hobetzen badu, herriko taldeen artean jokatu ahaliko dugu"

"Entrenamenduan ahalik eta denborarik gehien baloiarekin jolastea eta ondo pasatzea da helburu nagusia"

kin jolastea eta ondo pasatzea da helburu nagusia. Entrenamenduan ez gara geldirik egoten. Baloiarekin alderik alde gabiltza. Gehienez sei laguneko azpitaldeak eratuta, kantxa osoan zehar aritzen gara gure ariketak egiten.

Ez dut gehiagotan murgildu nahi. Hau ez da saskibaloia entrenamendu saio baten 'master class' bat. Honekin, bizitzen ari garen egoera latz honetan, norberaren kirol saioak egitean jaso behar ditugun momentu on eta pozgarriak lantzeko erabiltzen dudan modu erraza da. Eta, noski, era berean entrenamendu bakoitzean, saskibaloian bakoitzak eta taldeak aurrera egiteko era bat da. Nire kirolean, nire taldekideekin, ondo pasatu eta landu!

Beharbada, Aste Santuko oporren ostean, egoera hobetu eta bide onetik jarraitzen badugu, herriko taldeen artean jokatu ahaliko dugu. Horrek esan nahiko du denok hoberantza egiten egongo garela. Sintoma ona izango da gu denontzat eta gizartearentzat.

Bitartean, gozatu kirola eginez! Zaindu eta aurrera!



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

// AUKERA

KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E= E. 131.000 €**
ANBOTO: 3 logela eta sukalde-jangela. Garaje itxia aukeran. **C.E.E=F 150.000 €**
ALDE ZAHARRA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Despentsa-trastelekua. **C.E.E=F 130.000 €**
IURRETA: B. KAPANAGA .2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. **C.E.E=G. 125.000 €**
MATIENA: Solaguren. Erdialdean. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Ganbara. Igogailua. Argitsua. **C.E.E= G. 120.000 €**
IURRETA: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza. Berriztatua. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E= E 97.500 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

IURRETA. Bidebarrieta. Apartamentua. Komuna, sukaldea, egongela eta eskegitokia. Ganbara. 2 garaje plaza. **C.E.E= E. 170.000 €**
DURANGO. Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Jantzia. **C.E.E= F. 145.000 €.**
ARTZETAGAN: 2 logela,, 2 komun, sukaldea eta egongela-jangela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. **C.E.E=F 270.000 €**
IBAIZABAL: Apartamentua. Erdi berria. C.E.E=A 175.000 €
IURRETA: MASPE. 3 logela eta komuna. Terraza. Igogailua. Berriztatua. **C.E.E:F .160.000 €**
ERRETENTXU: Etxebizitza altua. Argitsua. 3 logela, komuna leihoagaz, sukaldea eta egongela terrazagaz. Garajea aukeran. **C.E.E=F 208.000 €.**
F.J DE ZUMARRAGA: 116 m2. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. **C.E.E=F 199.000 €**
ANTSO EZTEGIZ: 111 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 249.000 €**
MASPE: 126 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela terrazagaz. Ganbara eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E=F 270.000 €**

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Ganbara. **C.E.E=G. 215.000 €**
SAN AGUSTINALDE. 103 m2. DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza.
ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. **C.E.E=F 198.000 €**
F.J. DE ZUMARRAGA: 4 logela, komuna eta egongela terrazagaz. Eguzkitsua. **220.000 €**
KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 186.000 €.**
MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **CEE= E. 160.000 €**
ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila eraikitzeko baimenagaz. **250.000 €**
MATIENA: J.A. Unzueta. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta despentsa. Terraza. Igogailua. 2 trasteleku. **C.E.E=E 145.000 €**
EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ikuspegi ederrak. **C.E.E=E 147.600 €.**
MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatzen. **125.000 €**
BERRIZ. BIDEGAIN. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E= F. 205.000 €**

// LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

ERMODO: Alokairuan. 25 m2. **650 €**
F.J. DE ZUMARRAGA: Aukera. 114 m2. SALMENTA. **150.000 €.** Negoziagarria.
ABADIÑO: 160 m2. Egokitua. Dena erakusleihoa 2 kaletan. **175.000 €**
ASKATASUN ETORBIDEA: Garaje itxia. **24.000 €**
ASKATASUN ETORBIDEA: 8.000€-tik aurrera garajeak.
F.J. DE ZUMARRAGA: Aukera. 114 m2. SALMENTA. **150.000 €.** NEGOZIAGARRIA.
J.M.ALTUNA: Salgai. Garajea. **20.000 €.** Trastelekua aukeran.

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Txibitena. 4 logela. Pisu zabala. Sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua.
DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.
DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.
ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.
GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzen. Kokapen izugarria.
ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeko. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatzen. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €
MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzen. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO
20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
92,71 m²
MARTXOAREN 8KO KALEA: (antzinatasuna 12 urte) 3 logela, egongela, sukaldea jantzita, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 18,30 m2-ko garaje itxia. Igogailua. Leku onean.
315.000 € C.E.E: Bidean



IURRETA
3 logela
68,62 m²
ZUBIAURRE: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Igogailua. Kontserbazio egoera onean. Leku onean. AUKERA.
146.000 € C.E.E:Bidean



DURANGO
67 m²
2 logela
SASIKOA: Sukalde jantzia, egongela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoaldea. Argitsua. 28 m2-ko garaje itxia eta 3m2-ko ganbara barne. Igogailua.
229.000 € C.E.E:E.



DURANGO
45 m²
TABIRA: 45 m2-ko apartamentua (erabilgarri) Saloia, sukalde jantzia (amerikarra), gela bat, komun bat eta eskegitokia. Kanpo aldera (Ifarra/Mendebaldea) 15 urte baino gutxiagoko antzinatasuna. EZIN HOBEA. Garaje partzela.
169.000€ C.E.E: Bidean



MATIENA
2 logela
51,9 m²
TXINURRISOLO: egongela, sukalde jantzia eta komuna. 8 m2-ko ganbara. Erdia kanpora begira (Hegoaldera). Bizitzera sartzeko moduan. ALOKATU EGIN DAITEKE, EROSTKEO AUKERAGAZ.
96.000€ C.E.E: Bidean



DURANGO
3 logela
105 m²
LARIZ DORREA (Santa Ana): etxebizitza, saloia, egongela, sukaldea, lau gela eta 2 komun. Kanpo aldera (Hegoaldea/Mendebaldea). Herrigune historikoan dago. Hirugarren solairua igogailu barik. BERRIZTATZEKO. Ganbera barne.
125.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
ERRETENTXU KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Igogailua. **185.000 € / E.E.E=E**
EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 300.000 € / E.E.Z=F**
GOIENKALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=E**
KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **130.000 € / E.E.Z=F**
KOMENTU KALEA: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela balkoiagaz, bainugela eta komuna. 160.000 € / **E.E.Z=G**
MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**
TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**
TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 € / E.E.Z=G**

//BERRIZ

ANDIKONA AUZOA: Berreraikitzen. Baserria. **460.000 €.**
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**
LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **LEHEN 102.000 € / ORAIN 95.000€ / E.E.Z=E**

//IURRETA

FAUSTE AUZOA: Baserria. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzorugaz. **300.000 € / E.E.Z=G**
OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. **LEHEN 220.000 € / ORAIN 185.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

//BERRIAK

DURANGO
SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. **195.000 € / E.E.Z=E**

“Liburu asko eduki arren, pertsonak dira liburutegien lehengai nagusia”

Inazio Zubia Elorrioko liburuzaina izan da 1987tik; 20 urte Berrio-Otxoa kaleko liburutegi zaharrean egin zituen. Azken 14 urteak haur-liburutegian egin ditu, Iturri kultur etxean



Inazio Zubia Buj
Elorrioko liburuzaina
ELORRIO | 1956

ELORRIO • AITZIBER BASAURI
Inazio Zubiak hiru hamarkada egin ditu liburuzain Elorrian. Belaunaldi bat baino gehiago ezagutu ditu liburutegian, eta, azken egunotan, egindako lanagaitik esker ona adierazten duten gutunak jaso ditu umeengandik. Erretiroa hartu eta lekukoa emateko ordua heldu zaio: "Orain, agenda hartu eta bete egingo dut. Denboraz eta bizitzaz disfrutatuko dut", esan du. Betiko liburuak eta liburu elektronikoak osagarriak direla uste du: "bakoitzak bere tokia du. Liburuak ez da desagertuko".

Zelakoa izan da 34 urteko ibilbidea? Liburuzainaren lana asko aldatu da?

Aldatu da, bai. Liburutegi zaharrean 75 metro koadroko espazioagaz borrokatu behar genuen; haur eta heldu, denok partekatu

beharreko gunea zen, gainera. Hori atzean utzi eta Iturri kultur etxera etortzea jauzi handia izan zen. Luxu bat da Elorrio lako herri bantentzat horrelako haur-liburutegia izatea, helduentzako liburutegia ahaztu barik. Niretzat plazera izan da hemen lan egitea. Hainbat ekin-tza antolatzeke aukera eta lekua ditugu; liburutegiari bizia eman diogu: hilero ipuin kontaketa saioa, eta ume zein helduentzat irakurketa tailerrak antolatu ditugu. 26 urtean irakurketa lehiaketa egin dugu. Kontzientiazio lana ere egin behar izan dugu gurasoeekin, liburutegia ez delako ludoteka.

Irakurzaletasuna handitu egin da?

Bai, asko. Ikastetxeetan bide luzea egin da. Adina eta gaia (berdintasuna, beldurra, bullying-a,

agresibitatea...) kontuan hartuta, libururik egokienak eskaintzen zaizkie umei. Helduok ere asko ikasi genezake, gero txikiei erakusteko. Liburuak oinarritzakoak dira gizakion eta gizartearen garapenerako. Bada, gehiago gozatu beharko genituzke liburutegiak: herri baten kultura maila erakusten dute. Liburu asko eduki arren, pertsonak dira liburutegien lehen-

Turbantean ezkutatu zuen mugikorretik berbetan harrapatu nuen pertsona bat. Harrigarria!

gai nagusia, eta zaindu egin behar ditugu. Haiengana heldu behar dugu, haiekin egon behar dugu.

Irakurlea jaio ala bilakatu egiten da?
Denboragaz egiten gara irakurle, eta etxean ikusitakoak badu eragina horretan. Ingurukoak irakurtzen ikustea, irakurmen-giroa sentitzea, hori hor geratzen da betirako.

Badago gehiago egiterik irakurzaletasuna bultzatzeko?

Beti egin daiteke gehiago. Baliabideak eman behar ditugu irakurtzen jarraitzeko eta ohitura horri eusteko. Gainera, beti egongo da gustuko irakurketaren bat. Topatu egin behar dugu. Bada, utzi diezaiegun umei gustuko duten hori irakurtzen. Irakurtzera motibatu egin behar da, inoiz ere ez behartu.

Zaletasuna ofizio bihurtu duzu ala lanbideak eroan zaitu irakurtzera?

Beti gustatu izan zait liburu artean egotea. Denerik irakurtzea gustatzen zait, gainera. Umeentzako liburuak, best-seller-ak, nobela beltza.... Kultur bitartekaria naiz azken finean, eta gustatzen zait horretan jardutea. Giza harremanak, pertsonak eta irakurketa gustuko ditut.

Baduzu anekdotarik gogoan?

Sasoi batean, debekatuta zegoen liburutegian mugikorra erabiltzea. Bada, pertsona bat turbantean ezkutatuta zuen telefonotik berbetan harrapatu nuen. Haur-liburutegiko umetxoentzako gelan izan zen. Harrigarria iruditu zitzaidan!

Askotan eskatu duzu isilik egoteko?

Bai, eta eskerrak. Kultur azpiegitura ikaragarria dugu eta mugimendu handia dago. Jende asko pilatzean denean, gainean egon beharra dago; askotan gurasoen gainean umeen gainean baino gehiago.

Zein liburu duzu mesanotxean?

La Bruma Verde (Gonzalo Giner).

Idazle bat?

Hermann Hesse asko gustatu zait beti; Dostoievski edo Agatha Christie ere bai. Asko ditut gustuko.

Gomendio bat irakurtzeko?

Komikiak irakurtzera animatuko nuke. Erraz irakurtzen dira. Marrazkiek lan izugarria dute eta mezu asko batzen dituzte.

Lauhortza

Ainhoa
Olaso Sopelana
Behargina



Fikzio bat II

Ez dakit hil nahi ote zuen edo akaso ez-bizi soilik. Azken kantu bat eskatu zidan (*mozkorrak aske utzitako mamua, grina mutuen errekan itotzen utzi beharrean*) eta orain oinak hotz ditut, baina ez nago hilik. Orduan, sintzerizida baten inbasio eta atentatuen beldurrez (inoiz ez da jakiten noiz) muga guztiak itxi zituen (eta «Frantziako polizia Hen-daiako Euskotren geltokian ehunka migratzaile atzeman ondoren, herrialdetik kanporatu ditu legearen gainetik»). Bartzelonako galtzada-harri bat baino gogorragoa da asmatu dugun patua. Baina etzi, epe laburrerako proiektuak trukatu aurretik, herri-galdeketa batean baiezkoa ala ezezkoa bozkatzera deituta gaude bizilagunak: "Ohar-tzen al gara zerbait eraikitzen dugun bakoitzean zenbat argi kentzen diogun geure buruari?". *Eguneroko bizitza ikatza bezalako labezomorroak isurtzen hasi zenetik, etengabe akordatzen naiz oraindik bisitatu gabeko hiriburuetakozu argitsu eta hondartza luzeez. Eta Laboaren Lili Bat abestiaren kumbia bertsioa asmatu behar izan genuen lagun artean Egiptoko zazpi izurriteen edizio ugaltu eta korrejitua susmatuz. Baina hau ez da produktora txiki europar batek ekoiztitako pelikula bat, eta, gainera, oraindik ez da udaberria iritsi. Azken kantu bat aukeratzeko eskatu zidan, dantzatzeko edo ordutik aurrera norberak bakarrik minez ospatzeko, auskalo. La Jodedera taldearen Bihotz Isila abestia, ikasi eta momentua bizitzeko deia, erritmo kubatarrarekin. Nik dantzan jarraituko dut behintzat!*

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com